

salto-saltoka

KILOMETROAK 2025 ELGOIBAR

URRIAK 5



TKASTOLAK

Adin txikiko pertsona askok harrera-familia bat behar dute. Eta familia askok erantzuna eman diezaiokeite egoera horri. Baina ez dute deitzen uste dutelako ez datozela bat perfilarekin. Horregatik, deitu aurretik zalantzak argitzen dituen lehen telefono zenbakia sortu dugu. Zure familia 6, 8, 2, 5, 4 edo 3 kidekoa izatea berdin duelako. Garrantzitsuena delako, bakarrik haziko den adin txikikorik ez egotea. Deitu ezazu.



682554433



GIPUZKOA

Foru Aldundia

AS

Aurkibidea

Orrialdea

Kilometroak aurkezpena	4
Bailarako erreferente pedagogikoa.....	7
Salto euskarara!.....	12
Aspanogi: 30 urte, minbizidun umeak zaintzen	16
Egitarauaren eskuorria.....	18
Maritxu Loiola Ugarteburu	21
Leloa eta logoa.....	24
Abestiaren letra	27
Batzordeak	28
Urtean zehar egindakoak	32



Karakate

Kilometroak aurkezpena

Aste gutxi barru dugu hitzordua. Urriko lehenbiziko igandean ospatuko dugu Kilometroak jaia. Gipuzkoako ikastolen jai handia, aurtan, Elgoibarren, bertako ikastolak antolatuta. Eta nola antolatu ere!

Urte osoa daramate buru belarri, Azpeitian ere izan ziren ordezkari batzuk aurreko ekitaldiaren antolaketan laguntzen, aurtengoa antolatzeko ikasi beharrekoak ikasten. Urtebeteko lana Kilometroak eguna antolatzeko, eta baita urtean zehar egin dituzten hainbat ekitaldi antolatu eta aurrera eramateko ere, Kilometroak urtea osatuz.

Hitz batean, auzolana. Musu truke egindako lana, sartutako orduak, egindako esfortzua... norberaren onura bilatu baino, kolektiboaren mesedetan egindako lana. Indibidualetik, kolektibora; norberarenetik, komunitariora. Gizarte onura helburu. Eta horrela jardunez, Elgoibar Ikastolaren komunitatea sendotu egin da, loturak estutu dira, proiektuak irabazi du.

Bihoakie, beraz, aitortza eta esker ona, Elgoibar Ikastolako komunitateari, Kilometroen antolakuntzan, koordinazio taldean, batzordeetan, ari direnei, urteko ekitaldi desberdinak aurrera atera dituzten boluntarioei, eta Kilometroen aurreko egunetan, egunean bertan eta biharamunean lanean ariko diren guztiei.

Ikastolei, euskarari, euskal kulturari eta euskaldunoi agertoki eta bozgorailu erraldoiak eskaintzea izan da Kilometroen helburu nagusia sorreratik. Ikastolen proiektua sendotzea eta indartzea da gure asmoa, baina harago doa: ikastola mugimenduaren indar erakustaldia ere bada, gure komunitatea sendotzen laguntzen duen egun bat ere bada, gure hezkuntza eredua aldarrikatzeko eguna. Euskara eta euskal kultura biziberritzea, lehen lerroan jartzea bilatzen dugu Kilometroekin. Euskaldonok bagarela nor adierazteko plaza handi bat ere bada, euskaraz bizi nahi duten herriaren eta herritarren bilgune handi bat baita. Horrela jardun dugu urteotan guztiotan, aldian aldiko berrikuntzak eta doikuntzak ezarriz, parte-hartzeari gero eta garrantzia handiagoa emanez, Kilometroak urteko hitzordu garrantzitsuetako bat izateari eutsiz.

Honela iritsi gara berrogeita bederatzigarren ekitaldi honetara, eta datorren urtekoa izango dugu berrogeita hamargarrena. Zenbaki biribila, eta izango dugu berau ospatzeko aukera ere. Berrogeita hamargarrenera iritstea, berrogeita bederatzigarren ospatu behar dugu, ordea, eta Elgoibarren ia dena prest daukagu, salto-saltoka, sokaren bueltan jarduteko, auzolana eta elkarlana indartuz, eta euskara hauspotuz. Urriaren 5ean, Ikastolen, euskararen eta euskal kulturaren eta euskaldunon plaza izango da Elgoibar. Zatoz zeu ere!

Aitor Elizaran

Kilometroak Kultur Elkarteko lehendakaria

salto-saltoka

KILOMETROAK 2025 ELGOIBAR



Aitor Elizaran

berria



GARBITU

INDUSTRIA GARBIKARIAK

euskal@garbitu.net

628 474 267



Mundua, bagoaz.

BANOOOA **GO!**

Irentsi mundua LABORAL Kutxaren GO! txartelarekin.

EZ du komisiorik Estatu
osoko 10.000 kutxazain
baino gehiagotan*.

EZ du komisiorik,
LABORAL Kutxaren aldetik,
atzerriko kutxazainetan**.

EZ du
komisiorik dibisa
aldatzeagatik.

EZ DU KOMISIORIK, EZ HEMEN*, EZ ATZERRIAN**

*Zure probintzian dirua komisiorik gabe ateratzeko, LABORAL Kutxaren kutxazain-sarea duzu; zure probintziaz kanpo, berriz, entitate hauetako kutxazainak erabil ditzakezu: Caja Rural, Cajamar, Bankinter, Caja de Ingenieros, Cashzone, Deutsche Bank, Arquia Banca, Euro Automatic Cash eta Euronet WorldWide.
**LABORAL Kutxak ez du komisiorik kobratuko atzerriko kutxazainetan. Kutxazainaren jabeak komisio bat ezar lezake kutxazaina erabiltzeagatik (LABORAL Kutxak ez).

Abantaila horietaz baliatzeko, LABORAL Kutxaren bezero izan behar duzu, 14 eta 29 urte bitartekoa (biak barne). Horrez gain, 18 urtetik aurrera nahitaezkoa izango da entitate honetan Bizum aktibatuta izatea.



LABORAL
kutxa

Bailarako erreferente pedagogikoa

Elgoibar Ikastola 1962an sortu zen, euskal kultura eta hizkuntza sustatzeko asmoarekin. Hasieran, herriko eta inguruetakoko familiek euskarazko hezkuntza eskaintzeko beharra ikusi zuten, eta horrela sortu zen ikastola. Urteak joan ahala, ikastolak bere eginkizuna sendotu du, ikasle eta familien artean euskararen eta euskal kulturaren transmisioa bermatuz. Gaur egun, Elgoibar Ikastola herriko eta inguruetakoko komunitatearen parte aktiboa da, eta euskarazko hezkuntza eskaintzen jarraitzen du, bai Haur Hezkuntzan, baita Lehen eta Bigarren Hezkuntzan ere.

Hasierako urteetan, ikastolak ikasle gutxi zituen, baina denborarekin hazkunde nabarmena izan du, eta garai batean hainbat eraikinetan banatuta egon zen. Gaur egun, ikastola eraikin bakarrean dago kokatuta, eta modernizazioaren eta berrikuntzaren aldeko apustua egiten du, teknologia eta pedagogia berritzaileak integratuz, betiere euskararen eta euskal kulturaren transmisioa ardatz izanik.

Elgoibar Ikastolaren pedagogia euskal kulturaren eta hizkuntzaren sustapenean oinarritzen da. Hona hemen bere ildo pedagogiko nagusiak:

- **Euskararen normalizazioa eta sustapena:** Ikastolak euskararen erabilera eta transmisioa funtsezkotzat jotzen ditu, eta horretarako, eguneroko praktika pedagogikoan euskararen presentzia eta erabilera bultzatzen ditu.
- **Hezkuntza integrala:** Gaitasun akademikoekin batera, gizarte emozionala, kultura eta gizartearen balioak lantzen dira, ikasleak gizartearen partaide aktibo bilaka daitezen.

- **Berrikuntza pedagogikoa:** Teknologia berriak eta metodologia aktiboak erabiltzen dira, ikasleak parte-hartzaile, sortzaile eta kritikoak izan daitezen.
- **Komunitatearekiko lotura:** Familia eta komunitatearekin lankidetzan aritzen da, hezkuntza-prozesuaren parte aktibo bihurtuz.
- **Aniztasuna eta inklusioa:** Ikasle guztien beharrak errespetatzen dira, eta inklusibitatea sustatzen da, ikasle bakoitzaren gaitasunak eta interesak aintzat hartuta.

Elgoibar Ikastola, bere historiaren eta ildo pedagogikoen bidez, euskararen eta euskal kulturaren transmisioan eta normalizazioan funtsezko eragilea da Elgoibar eta inguruetakoko komunitatean. Bere konpromisoa hezkuntza kalitatearekin, berrikuntzarekin eta komunitatearekiko lankidetzarekin uztartzen da, etorkizuneko belaunaldientzat euskarazko hezkuntza sustatzen jarraitzeko.

Ion Vazquez zuzendaria



KILOMETROAK 2025

Salto euskarara. Saltoka elkarrekin. Halaxe eman dugu urtea, euskarara salto egiteko baldintzak sortzen, elkarren sokari eragiten.

Dakizuenetz, ikastolen aldeko jaialdiak dira *Kilometroak*, *Herri Urrats*, *Nafarroa Oinez*, *Araba Euskaraz eta Ibilaldia*, eta horien bidez euskara eta herrigintza sustatu eta indartu nahi ditugu. Eta egun bakarreko jaialdia baino, gure esku dagoen guztia egin dugu *Kilometroak 25* urte osoko eragile bilakatzeko.

2025eko Kilometroak jaia antolatzeko aukera gure herrian eragiteko baliatu dugu: **elkarlana eta euskararen erabilera areagotzeko.**



Iera Larrañaga koordinatzailea

BM
bronymec

Termoplastiko eta Konpositeen
Mekanizazio lanak
Metal Ez-Ferrikoak



Bat: Elkarlana

Parte-hartze soziala, lankidetz... oinarriak izan dira eta oinarriak dira gaur egun ere, egunero-egunero gure bizitzak hobetzeko. Ikastola gisa, kooperatiba gisa eta herri-ekimen gisa, gure arteko lankidetzan eta parte-hartze sozial aktiboan sinesten dugu. Eta hori euskaldunon indargune bat den neurrian, balioan jartzea eta sustatzea dagokigu.

Bi: Euskararen erabilera

Kilometroak urtea baliatu dugu euskararen erabilera areagotzeko. Ez euskararen alde gehiago egoteko, ez; **euskaraz gehiago eta gehiagok egiteko**. Hizkuntza bat baino gehiago dakizkigunok, aldiro hautatzen dugu zein hizkuntzatan hitz egin. Eta euskara, hizkuntza gutxitua eta gutxiagotua denez, horrek zaildu egiten du hizkuntza hautatzerako orduan, euskara jakinda ere, beti, denok, euskara hautatzea. Ba urte honetan, **elkarri euskara hautatzen laguntzea** izan dugu helburu, denontzat errazagoa izan dadin salto hori egitea. Eta horretarako, **lagundu egin behar izan diogu elkarri**. Elkarren babesean lortuko dugu salto hori egitea. **Elkarri soka emanda, elkarri soka luzatuta**.

Olatz Astigarraga lehendakaria



RECTIFICADOS NEURRI

Zubiak eraikitzen hasi gara elkarren artean, elkarlanerako. Eta horrela jarraitu nahi dugu. Eta ohartzen bazarete, **soka zubi bat da**, norbaitek eragiten badio. Euskarara salto egin nahi dugu, **euskaraz bizitzeko**. Eta ohartzen bazarete, soka **gonbidapen bat da**, euskaraz aritzeko.

Urte ederra izan dugu atzean. Hemendik aurrera ere, prestatu sokak astintzeko: **egin dezagun salto euskarara elkarrekin!**



Salto-Saltoka Urbilen, Gipuzkoako aisialdi gune handienera!

www.urbil.es



#25 urte

alto euskarara! eta Eusle ekimena

Kilometroetako helburu nagusietako bat gure komunitatea euskalduntzea da, bai Ikastola eta bai herria. Izan ere, Elgoibarren erdara nagusi bada ere, euskararen ezagutza altua da. Hortaz, Ikastola atarian eta kalean euskararen erabilera areagotzeko aukera paregabea daukagu.

Ikastola eta herria euskalduntzeko helburu horri lotuta, gutxienez 100 helduk euskarara salto egiteko erronka jarri diogu geure buruari. Izan ere, Ikastolako familien artean gehien-gehienok badakigu euskaraz, baina askok diogu euskaraz gehiago egin nahiko genukeela.

Gai honi lotuta, aurtengo urtarrilean Ikastolako helduen hizkuntza-ohiturak ezagutzeko galdetegi bat pasa genuen eta jasotako 525 erantzunen

artean, honako hauek izan ziren azpimarratu nahiko genituzkeen emaitza eta ondorio nagusiak. Bildutako emaitzek argi erakusten dute eragiteko aukerak egon badaudela. Galdetegia erantzun zutenen gehiengoak badaki euskaraz, zehazki, galdetegia bete duten 525 gurasoetatik 423ren artean euskaraz egiteko aukera dago. Ez da datu makala! Horrez gain, askok diote euskaraz hitz egiten dutela aukera daukaten guztietan eta gehien-gehienek diote euskaraz gehiago hitz egin nahiko luketela.

Bestalde, azken puntu horri lotuta, galdetegi hartan honako galdera hau ere egin genien gurasoei: zerk lagunduko lizuke euskaraz gehiago egiten? Bada, hauek izan ziren jasotako bi erantzun nagusiak: ingurukoek euskaraz ulertzen dutela jakiteak eta inguruan aldiro euskaraz egiten duen norbait izateak (hau da, inguruan Eusle figura bat izateak). Lehen erantzunari dagokionez, galdetegiak berak erakusten digu Ikastolako komunitatean euskararen ezagutza ia orokortua dagoela, eta batzuetan uste dugunaren kontrara, gure ingurukoek badakitela euskaraz. Uste baino aukera gehiago ditugu, beraz, euskaraz aritzeko. Ez genuke aukera hau galtzen utzi behar. Bigarren emaitzari dagokionez, argi ikusten da euskarara salto egin nahi duten horiei inguruan Eusle-ak izateak lagunduko diela urrats hori ematen.




salto-saltoka
KILOMETROAK 2025 ELGOIBAR

Horrenbestez, jasotako emaitzak esku artean izanda, Eusle izango diren eta euskarara salto egingo duten gurasoen konpromisoa biltzeari ekin genion Euskara Taldetik. Horixe izan zen Salto eta Eusle ekimenaren abiapuntua. Eusleak euskaraz egingo du beti eta testuinguru guztietan (haurrekin, helduekin, talde handian, txikian...), parekoak ulertzen ez duela adierazi arte. Salto egin nahi duena, berriz, ahal duen guztietan saiatuko da euskaraz egiten, kasu honetan ere parekoak ulertzen ez duela adierazi arte. Azken batean, euskararen alde egotetik euskararen alde egitera igaro nahi dugu ekimen honekin. Bakoitza bere errealitatetik abiatuta euskaraz gehiago eta gehiagorekin egitea da helburua. Izan ere, Salto edo Eusle, Eusle edo Salto, era batean edo bestean konpromiso hori praktikan jartzetik etorriko da gure Ikastola eta Elgoibar euskalduntzeko behar dugun bultzada.



**KUTXA
FUNDA
ZIOA**

Euskara bizi dugulako



salto-saltoka

www.kutxafundazioa.eus



Badakigu hizkuntza ohiturak ez direla egun batetik bestera aldatzen eta herritarren kooperazioa dela hizkuntza biziberritzeko gakoa. Horregatik, taldearen garrantzia azpimarratu nahiko genuke, taldean sentitu dezakegun babesa oso garrantzitsua izango delako euskarara salto egiteko. Dagoeneko Ikastolako 90 bat helduk hartu dugu euskarara salto egiteko konpromisoa. Batzuek lehendik ere euskaraz egiten zuten beti eta horiek akuilu izango dira orain erronka horri heldu diotenentzat.

Ekimen hau hasi besterik ez da egin eta oraindik ere aukera dago nahi duenak konpromiso hori hartu eta praktikan jartzeko. QR kode honetan sartuta ekimenean izena emateko aukera dago.

SALTO:



EUSLE:



SALTO **EUSKARARA**
SALTOKA **ELKARREKIN!**



Z A H E R

Desarrollos mecánicos / Garapen mekanikoak



gertu
in primategia
INPRESIC lanak

kilometroarekin bat!

ALDIZKARIAK ▼

▼ LIBURUAK eta KATALOGOAK

▼ AGENDAK eta EGUTEGIAK

SPANOGI, 30 urte minbizidun umeak zaintzen



Bizitzak baditu aldapa gorak, aldapa behereak eta zelai une luzeak. Baina, zenbait kasutan, bizitzak bakarrik igo ezin diren aldapak jartzen ditu aurrez aurre. Gaixotasunak dira horren adibide nagusia. Eta zer esanik ez gaixotasun hori umetan badator. Minbizia izan duten edo duten umeek eta haien familiak ondo dakite hori. Parez pare jarritako aldapa malkartsu hori igotzen laguntzeko sortu zuten duela ia 30 urte, 1996an, ASPANOgi elkarte, Gipuzkoako minbizidun haurrei eta haien familiei laguntza eta babesa emateko elkarte.

ASPANOgiko arduradunek azaldu dutenez, “minbiziak eta tratamenduak eragina izaten dute adingabe eta familiaren egunerokotasunean, egun batetik bestera bizitza hankaz gora jartzen diete. ongizate emozionalean, familiaren dinamikan, hezkuntza arloan (minbizidun ikasleak ezin du ikastolara joan denboraldi batean infekzio arriskua dela eta), lan eta familiaren ekonomian... Eragin zuzena izaten du familien egunerokoan.”

Gaur egun, 265 familia bazkidek osatzen dute elkarte eta egunerokotasunean 4 profesional daude minbizia duten haurrei eta haien familiei laguntzen: administraria, komunikazio arduraduna, psikologoa eta gizarte langilea. Dena dela, ASPANOgitik azpimarratzen dute bazkide laguntzaile eta boluntarioak ere garrantzitsuak direla. “Gipuzkoako herritarrek eskuzabalak dira eta kausarekiko elkartasunaren irudi dira.”

Horrela laburbiltzen dute ASPAGONiko arduradunek beren elkartearen xedea: “Helburu nagusia adingabe minbizidunaren eta bere familiaren bizi maila hobetzea da, arreta oso bat eskainiaz diagnostikoa ematen den une beretik bai ospitalean eta ospitaletik kanpo”. Irabazi asmorik gabeko elkarte da, eta hitzarmenak izenpetuak ditu Gipuzkoako Foru Aldundiarekin. Egindako lanarengatik sariak ere jaso izan dituzte erakunde publikoetatik.

Donostiako Ospitale Unibertsitarioan diagnostikatu eta jasotzen dute tratamendua 0-18 urte bitarteko adingabeek Gipuzkoan. Haur Amatasuneko 3. solairu urdinean kokatzen da hemato-onkologia pediatriko unitatea eta 2. solairu urdinean Eguneko Ospitalea, ingresatzea behar ez duten kasuetarako. Osasun langileek ematen diete ASPANOgiren berri familiari eta hauen onespena izaten bada, elkarteko gizarte langilea eta psikologoa egongo dira familiarekin presentzialki ospitalean. Arreta psikologikoa eta soziala eskaintzen zaie une horretatik, ASPANOgiren zerbitzu eta baliabideak zeintzuk diren azaltzen zaizkie ere.

“Zaintzailea zaintzea” izan da ASPANOgiren helburuetako bat eta horretarako zerbitzu eta baliabideak jarri ditu. Hala nola, eguneko bazkari eta afari txartelak ospitaleko egonaldietan, familiarentzako zaintza gela onkohematologia pediatriko unitate barruan eta Piratenea atsedean etxea. Minbizidun adingabe eta familien arteko harremanak bultzatzea ere garrantzitsua da ASPANOgin, ospitalean ezagutu diren haur, nerabe eta familiei une atseginez gozatzeko aukera eskaintzen zaie urtero egiten diren irteera, topaketa eta bidaletan. “Umore ona botikarik onena da”, nabarmendu dute ASPANOgitik. Elkartasun kanpainak eta ikastetxeetan egin ohi dituzten hitzaldiak ugarituz joan dira urte hauetan. “Minbiziak hitz egitearen beharra agerian jartzen dugu horrela, gizartean ditugun tabuak hautsi behar baitira, haur minbiziaren errealitatea landuaz.”

'Ane Pirata' eta Oier Etxaniz

ASPANOGLi kide ezagunak izan ditu ia 30 urte hauetako ibilbidean. Horietako bi elgoibartarrak dira: Ane Perez eta Oier Etxaniz. Ane Perez, 'Ane Pirata' ezagunagoa da Euskal Herria osoan, Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoan "Eskerrik asko" ikuskizunaren musa izan baitzen. ASPANOGLi eta Donostiako Ospitaleko langileen elkarlanari esker sortutako proiektua izan zen, eta 2007. urtean Euskal Herriko txoko guztietan ikusgai izan zen. Gaur egun, unitate didaktiko gisa erabiltzen da ikastetxeetan, haur minbiziaren gaia lantzeko.

Oier Etxaniz ASPANOGLi boluntarioa izan zen eta minbizidun haurrei ospitaleko egonaldia alaitzen zien bere errobot eta teknologiarekin. Bere ama Lourdesek Oierren lekukoa jaso eta ASPANOGLi boluntarioa da egun.

Arrosa fuksia koloredun pirata

Urte hauetan guztiean egindako lanari esker, irudi, abesti eta bestelako euskarri asko sortu dituzte ASPANOGLi, eta horietako asko minbizia duten haurrekin lotzen ditugu ikusi bezain laster. Arrosa fuksia koloreko pirata da elkartearen irudia. Itsasoaren egoeraren arabera, gaixorik dagoen pirata txikia alai, triste, haserre edo abenturak bizitzeko gogoarekin egongo da. 'Piraten indarra' eta 'Bizi' abestiak, bestalde, minbizidun haurren himnoak bilakatu dira. Zuhaitz propioa ere badute Donostia Ospitale kanpoan, pirata guztiei eskainitako omenaldi gisa: Porrotx pailazoak oparitutako gereziondoa.

Aspanogi



MTE

MILLING MACHINES



MAIATZAK 11
SENPERE



Ibilaldia
Magaletik herrire
euskera erdire

MAIATZAK 25
GALDAKAO

etengabe

araba
euskaraz'25

EKAINAK 15
GASTEIZ



oinez
buruz, bihotzez, oinez

URRIAK 19
ATARRABIA

ERAKUNDEAK



BABESLEAK



LAGUNTZAILEAK



KOMUNIKABIDEAK



1. IKASTOLA gunea
EUSKARAREN KOMUNITATEA

9:00 Ikastolako txarangaren Diana (ibilbidean zehar)
10:00-10:30 Irekiera ekitaldia
10:00-11:00 JOALDUNAK (ibilbidean zehar)
11:00-12:00 ENE KANTAK
12:30-13:45 ASGARTEH
14:15-15:00 XARIBARI
15:30-17:00 GOIAZEN!
17:15-17:45 KITTU!

BAZKARIA (13:30-16:15 Ikastolako frontoian): Paella / Oilaskoa LumaGorri / Makarroiak

EGUN OSOAN ZEHAR: Laboral kutxa PUZGARRIAK, Kaiku BASERRIA (Zatoz Kaiku BASERRI txokora, behia jetzi eta tailerrez gozatzera!), Argitxo TXOKOA, Haurren jolasak, BERRIA txokoa (Asier Kidam magoa). Ikastolako pistak: Real fundazioa PUZGARRIAK, Eroski ELIKADURA TAILERRA, Eitb MAKUSI

LABORAL KUTXA, Eitb, LumaGorri, Kaiku, MAKUSI, EROSKI, berria

B. EZENARRO KALEA gunea

11:00-12:30 EINGO TALDEA
11:45-13:45 MAGO IBILTARIK: Alain Zulaika, Rubik eta Eneko Gutierrez
13:15-14:30 MAUXITXA TXARANGA
15:00-15:30 ERBUZE KONPARTSA
15:30-17:15 PATXANGOI elektrotxaranga
17:45-18:00 KITTU! (ibilbidean zehar)

EGUN OSOAN ZEHAR: Artisanu azoka, Eragileen postuak
JATEKOA: EUSKO LABEL

EROSKI, LumaGorri, Kaiku



salto-saltoka
KILOMETROAK 2025 ELGOIBAR

EGUNEAN ZEHAR JAI EREMU BARRENEAN: JOALDUNAK, DIANA (IK)



salto-saltoka

KILOMETROAK 2025 ELGOIBAR

URRIAK 5



elgoibar ikastola

IKASTOLAK



salto-saltoka
KILOMETROAK 2025 ELGOIBAR

Elkarrekin, salto euskarara!

Saltoooooo...
Saltoooooo...
Saltoooooo...
Saltoooooo...

Guri begira ari dira, begira-begira.
Mugitu gaituzen helduok behar den tokira.
Lehen saltoak gureak izango balira,
egon lasai, euraire etorriko dira.

Kilometroak... uuuuuuh...
Kilometroak... uuuuuuh...

Ama, aita, izeba, lagun, astindu nagiak!
Etorrizun usaina dauka zure izendak. Lehenbiziko
saltoetan ze kili-kilik,
begira brilli-brilli dituzu begiak.

Uooooh...
Salto! Salto! Esartetik hitzetara!
Salto! Salto! Jaustean aitxako gara!
Salto! Salto! Egiteko garaia da...
Saltoooooo... Elkarrekin euskarara!

Beldura eta gogoa hegaldi beren,
aldaketa errazagoa ez al da taldean?
Albokoak ematen duen sokaren gainean,
egin dezagun salto, goazen airean!

Kilometroak... uuuuuuh...
Kilometroak... uuuuuuh...
Ikastolak bota du herriraino soka;
ohitura aldatzeko, badugu emenika!
Erosokeria jarri ezkerreko koka,
Kilometroen bueltan baietz herri bat saltoka!

Uooooh...
Salto! Salto! Esartetik hitzetara!
Salto! Salto! Jaustean aitxako gara!
Salto! Salto! Egiteko garaia da...
Saltoooooo... Elkarrekin euskarara!
(Berriz)

Elkarrekin euskarara!
Elkarrekin euskarara!
Elkarrekin euskarara!
Elkarrekin euskarara!
Elkarrekin, salto euskarara!

Musika: Aitor Nova Alvarez.
Hitzak: Eneko Beretxéna Laskurain
eta Ainhoa Mendibil Artetxe.

kilometroak.eus



Alkohol eta beste
zikloak sortze
debekatu da.



ERASERIK
EZ!



Jaiak
aske
bizi
eta
gozatu



ELGOIBAR



Deba ibaia

MAALA PLAZA gunea
B. EZENARRO KALEA gunea



A-8

MINTXETA



(IKASTOLAKO TXARANGA), TXARANGAK, ERBUZE ERRALDOAIK... ETAB.



2.

AITA AGIRRE PLAZA gunea

EUSKARAREN HERRIA

Buruzko nagusia



11:00-11:45 KITZIKI
12:15-13:00 TXOTeko EZPATA
13:30-14:30 HEITXI
14:30 ERBUZE KONPARTSA (ibilbidean zehar)
15:00-16:15 EHUN KILO
16:45-18:00 JANUS LESTER
18:00-18:30 KITTU!

BESTE EKINTZA BATZUK:
10:30-13:15 SOKA SALTO txokoa

EGUN OSOAN ZEHAR: Euskaltel txirringa zirkuitoa



euskaltel



3.

KALEGOEN PLAZA gunea

KONPRONISOA: SALTO EUSKARARA

Buruzko nagusia

KUTXA
FUNDA
ZIOA

10:30-12:00 HERRI KIROLAK + BERTSOLARIAK
(Nerea Ibarzabal eta Andoni Egoitia)
12:30-13:30 MALKO
14:00-15:30 ITZAL ERROMERIA
16:00-17:00 BENGU
17:30-19:00 TRIKIDANTZ

BESTE EKINTZA BATZUK:
11:00-14:00 KALAKA jolasak: Haur jolas ezberdinak
(Eizako arkupean)

IATEKOA: Taloak



Alcorta





salto-saltoka



DANO BAT



Maritxu Loiola Ugarteburu

Aubixako Maritxu bezala ezaguna da elgoibartar gehienentzat, eta baita Euskal Herriko txoko guztietatik etorrita Aubixa baserrian egonaldiak egin dituztenentzat. Zenbat euskal herritar euskaldundu diren Aubixan edo euskal giroan murgildu diren Maritxuren laguntzarekin! Maritxu Loiola Idotorbe auzoko (San Pedro) Aubixa baserrian jaio zen 1948an. Ama zuen bertakoa eta aita ere auzokoa, Usatorre baserrikoa. Auzoko eskolan ibili zen umetan. Hamaika urtera arte ez omen zen asko joan kalera. Berak 20 urte zituela joan ziren kalera bizitzera.

Andres Alberdik lagunduta, D eta B euskara tituluak atera zituen UNEDen, Bergaran. Ondoren, bi urteko itzulpengintza ikastaro bat egin zuen Donostian. Euskara irakasten hasi zen, hasieran ikastolaren lokaletan eta, geroago, udal langileei. Elgoibarko Udaleko lehen itzultzailea izan zen, nahiz eta hasieran itzulpen lanak baino gehiago kultura bultzatzeko lanak egin: azoka bultzatu, jaialdiak antolatu...

Bere aitag Elgoibarko Izarrarekin sinatutako hitzarmenari esker, Aubixa baserria aterpetxe izateko moldatu zuten. Hasierako urteetan Elgoibarko ikastolako umeak joaten ziren uda pasatzera. 1989-1990 urteen bueltan, monumentu historiko izendatu zuten. Etxea eraberritu zuten eta euskal girotze barnetegi moduan hasi zen berriz 1992an. Ordutik, Maritxu Loiolak darama etxearen ardura.

Aubixa baserriaren historia

Aubixa baserriaren lehen arrastoak XV. mendekoak dira. Olasoko parrokiaren maizterra zen. Maizter izateagatik, artoa eta garia ematen zion parrokiari. Hemen bizi zirenek, XVIII. mendean eskuratu zuten etxearen jabetza. XX. mendekoa 60ko hamarkadara arte, baserritik bizi ziren. 1973. urtean, Aubixan baserritik bizi zen Loiola familiak akordioa sinatu zuen Elgoibarko Izarrarekin, Elgoibarko Ikastolako umeek bertan udan egonaldiak egiteko. 1989-90 urte inguruan, monumentu historiko izendatu zuten Aubixa baserria. Eraberritu eta 1992 urtetik euskal girotze barnetegia da.



Bizi osoa euskarari emana

1962. urtean Elgoibar Ikastola sortzea erabaki zuten ameslari egoskorren helburuak ondo baino hobeto uztartzen dituen lekua bada, hori Aubixa baserria da: euskararen suspertzea, euskararen arnasgunea, elkarlana, konpromisoa, ilusioa, proiektua pentsatzea, diseinatzea eta gauzatzea... Eta hori guztia irribarre batekin egitea. Aubixa baserria hori guztia bada, Maritxu Loiola horien guztien pertsonifikazioa da. Berak hezur-mamitzen ditu Aubixa baserriaren eta bere proiektuaren atzean dauden balio guztiak. Horregatik eta bizi osoa euskarari eman izanagatik omendua izango da Kilometroak 2025 honetan. Ondo merezitako omenaldia eta eskertza.

Maritxu Loiola Elgoibarko Aubixa baserrian jaio zen, 1948. urtean. 20 urte zituen arte, eta familia baserritik bizitzeko gai izan zen arte, bertan bizi zen. Idotorbe auzotik kalera jaisteko hautua egin zuen orduan familiak. Urte batzuetan, beraz, hutsik egon zen baserria, harik eta Elgoibarko Ikastola sortu berriaren guraso batek Aubixa udako egonaldiarentako leku egokia izan zitekeela pentsatu zuen arte.

Juan Jose Araolazak kontatzen zuen Kalamuatik behera seme batekin zihoala, baserria eta inguruak ikusi zituela. Garai hartan, harreman handia zeukatela Zarautzeko ikastolakoekin eta bazekiela hangoek bazutela txoko bat, ikastolako umeek bertan udako egonaldiak egiteko. Pentsatu eta egin. Ikastolako guraso taldeari proposatu eta aho batez onartu zuten. Gero, ideia hori gauzatu beharra zegoen.

Maritxu Loiolak ondo gogoan dauka 1973. urtean bere aita zenak akordioa itxi zuela Elgoibarko Izarra elkartearekin, Aubixa baserria Elgoibar Ikastolako neska-mutikoen udalekuetarako gune izateko. Ez zen apeta hutsa. "Garai hartan, oso gutxi entzuten zen euskara kalean. Giro erdalduna zegoen kalean. Uda garaian euskaraz bizi ahal izateko eta euskal kulturaren eta giroan jarraitu ahal izateko tokia zen Aubixa", azaldu du Maritxu Loiolak.

Proiektua bazuten buruan, baina hori gauzatu beharra zegoen. Lan handia egin beharra zegoen baserria egokitzeko, eta dirua ere bildu beharra zegoen. "Gurasoek egokitu zuten jangela, lo egiteko gelak... Itsasontzi bateko literak ekarri eta jarri ziren. Herriko jendeak ahalegin handia egin zuen. Haiei zor diegu, hein handi batean, gaur Aubixa dena". Sebas Larrañaga Elgoibar Ikastolako irakasleak eta Aubixaren hasierako urte haietako ikasleak gogoan dauka hiru urtean egon zirela gurasoak egokitzapen lanak egitera. "Orduko korta jangela bihurtu zuten, adibidez".

Baina eskulana bakarrik ez. Dirua ere behar zen. Herri osoaren inplikazioari esker lortu zuten behar zen dirua, Maritxu Loiolak azpimarratu duenez. "Papera eta kartoia bildu eta saltzen zuten. Gurasoren batek kamioia jarriko zuen, eta herri osoan bildutako papera eta kartoia jasotzen zuten harekin, gero saltzeko".

Aubixaren hasierako urte haietan, Elgoibar Ikastolako umeak joaten ziren bertara, 12 eguneko egonaldiak egiten zituzten. Ekainaren amaieratik irailaren hasiera arte, lau txanda egiten ziren. "Jaiki, gosalduta eta ibiltzera: Iruturrira, Kalamuara, Arratera, Morura, San Pedrora... Gero, hango zelaian futboleko ibiltzen ziren umeak. Gauetan beti zegoen ekintza bereziren bat: sorgin bila, dantzak... Eta sua kalean".



MAPFRE



12 eguneko egonaldiak zenbait umeri luze egiten zitzaiera oroitzen da Maritxu: "Umeek 12 egun egiten zituzten etxetik kanpo. Egun asko ziren. Orduan, erakargarri egin behar zitzairen egonaldia. Umeei euskararen bultzada handia ematen zitzairen 12 egun horietan. Ume asko hor sendotzen ziren euskara aldetik. Baina, batzuetan, umeei kostatu egiten zitzairen, kale giro batetik zetozelako"

Amaren lekukoa hartuta hartu zuen Maritxu Loiolak Aubixa baserriaren ardura. Hasierako urte haietan, Maritxuren ama izaten zen baserriaren ardura zeukana: jatekoa prestatu, baserria txukundu... "Gure amak pentsatzen zuen hona etortzen zirenak Elgoibarko bere umeak zirela", kontatu du, irribarrea ahoan duela.

Lehen begiraleak, berriz, urtean zehar Elgoibar Ikastolan irakasle aritutakoak izaten ziren. Gero, Juventud Elgoibarresa izeneko scout taldeko boluntarioak. "Egin kontu, hasieran etortzen ziren ume horiek orain aitona-amonak dira. Ume haiek gero egingo ziren monitore edo boluntario, gero guraso, eta orain, aitona-amonak dira"

1991. urteko irailean, aldaketa handia izan zuen Aubixak. Ordura arte udalekuetarako txokoa zena, barnetegi bihurtu zen. 1989-90 urteetan, ondare historiko izendatu zuten baserria, Eusko Jaurlaritzak barnetegi bihurtzea proposatu, baserria konpondu, eta orduz geroztik euskara murgiltzeko barnetegia da. Urte osoan taldeak izaten dira bertan, eta Maritxu Loiola da baserriaren arduraduna. Hasierako urte haietatik hona, gauza batzuk asko aldatu dira, baina beste batzuk ez hainbeste. "Hemen egiten duten egonaldian, umeak ondo egotea izan da beti nire helburua"

Ondo baino hobeto laburbildu du Maritxu Loiolak zer den Aubixa baserria elgoibartar asko eta askorentzat: "Aubixa da oroitzapen askoko lekua umeentzat. Orain nagusi den jendeak ere hori aipatzen du. Nola txikitzen etorri ziren Aubixara". Oroitzapen lekua. Eta Aubixako oroitzapen on horietan bada beti pertsona bat: Maritxu Loiola.

bankoa | **ABANCA**

L

eloa eta logoa

Kilometroak 2025 Elgoibarren egin behar zela jakin bezain laster, buruari bueltaka hasi ziren antolakuntzako ardura hartu zutenak: zertarako Kilometroak Elgoibarren? Zer lortu nahi dugu? Zein helburu jartzen diogu gure buruari ekitaldi honetan? Olatz Astigarraga Elgoibar Ikastolako Kontseilu Errektoreko lehendakariordeak argi adierazi zuen Kilometroak 2025eko aurkezpen ekitaldian zer eta zertarako balio behar zuen: Ikastolako komunitate osoaren eta herri osoaren elkarlana sustatzeko eta komunitatean gero eta nabarmenagoa den gabezia bat konpontzeko bideak jartzeko, helduen arteko euskararen erabilera, alegia.

Elkarlana, partaidetza eta lankidetzak oinarriak izan dira sorreratik Ikastolen egunerokoan. Eta hala dira gaur ere eta horrela izan behar dira etorkizunean. Balio eta sinesmen horietan sinetsita jarri zaio elkarlanaren helburua Elgoibarko Kilometroak festari. Lankidetzak eta parte-hartze soziala euskal komunitate osoaren indargune nagusietako bat delako.

Aldi berean, Ikastolaren komunitate osoari eta elgoibartar guztiei ohartarazpen bat egiteko ere baliatu nahi izan da aurtengo ekitaldia. Izan ere, euskara hizkuntza gutxitu da oraindik. Ez da nahikoa euskararen alde egitea, euskaraz egin egin behar da. Haur zein helduei euskararen aldeko hautua egin eta euren eguneroko hizkuntza bihurtzea errazteko tresnak eta baliabideak jarri nahi izan dira.

Bi ardatz horiek kontuan hartuta ekin zioten Kilometroak 2025eko leloari eta logoari bueltak ematen. Eta emaitza asko ezaguna da: elkarri lotzen diren kolore ezberdinetako sokeak osatuko zuten logoa; leloa, berriz, adierazgarria: 'Salto-saltoka'. "Salto egin nahi dugu euskarara eta salto hori elkarrekin egin beharreko saltoa dela badakigunez, saltoka elkarrekin pasa nahi dugu urtea. Horregatik 'Salto-saltoka'", modu horretara laburbildu dute Kilometroak 2025eko antolatzaileek leloaren esanahia.

Eta logoa? Logoak ere zerikusi zuzena dauka aurtengo ekitaldiari jarritako asmo eta helburu nagusiekin: Soka izan da urte guztian jolaserako baliatu dugun elementua eta horiek ekarri dira ditugu dira. "Soka hori, saltoka hasteko bi pertsona elkarlotzen dituen elementua da guretzat, pertsonen arteko lotura, mugimenduan hasi orduko zubi bilakatzen dena", azaldu dute. Elkarrekin jarduteko eta euskarara salto egiteko baliatuko dira, beraz, sokak. "Askotarikoak, gutako bakoitzarentzako bana. Euskarara norbanakoak egiten dituen hizkuntz hautua ere saltoa baita, banakako saltoa, hautu pertsonala, baina soziala ere badena, bete-betean. Horregatik, salto egin nahi dugu euskarara, salto elkarrekin."



Elkarlana eta ariketa partekatua. Horixe izan da Kilometroak 2025eko abestia sortzeko eta zabaltzeko ariketaren ardatz nagusiak. Letra sortzea, musika sortzea eta jotzea eta bideoklipa sortzea eta grabatzea ariketa kolektiboa izan da. Eta horietan guztietan Elgoibar Ikastolako komunitatea izan da: ikasle eta ikasle ohiak, gurasoak, irakasleak... Eneko Beretxianagak egin du letra, Aitor Novak sortu du musika eta Jone Arriolak zuzendu du bideoklipa. Horiek guztiak laguntzeko, Ikastolako komunitateko kideek parte hartu dute: abesteko, musika tresnak jotzeko, bideoklipeko aktore lanak egiteko...



METALA

HIDRÁULICA · NEUMÁTICA · MECANIZADO




Letra

Aurtengo ekitaldiko helburuak azaldu ostean, abestiaren letra sortzeari ekin zion Eneko Beretxinagak. Hau da, helduen euskara erabilera sustatzea eta soken erabilera izan ziren abestia sortzeko Beretxinagak jaso zituen aldagaiak. Musikari doinua jartzera ohitua dagoen arren, alderantziz egin behar izan du ariketa honetan, letra musikaren aurretik sortu behar izan duelako. Belarrira erraz sartzeko helburuarekin hasi zen 'Elkarrekin salto euskarara' abestiaren letra sortzen. "Atal errepikakor batzuk baditu, estribillo moduko bat, marka propioa duena, Elgoibarren ez ezik, hemendik kanpora ere jendeak abestuko duena", azaldu du.

Musika

70eko eta 80ko hamarkadetako funky doinuak oinarri hartuta sortu du Kilometroak 2025eko abesti Aitor Novak. Doinu erakargarria eta kantatzeko erraza sortu nahi izan du, eta lortutako emaitzarekin gustura geratu dela aitortu du. "Herriarentzat egin beharreko enkargua izan da, jende asko identifikatu behar duena... Ez da lan erraza izan eta horrek ardura handia sortzen du, baina ni gustura geratu naiz emaitzarekin".



GRINDEL GEARS

Elgoibar

Abestiaren grabazioa

Elkar estudioetan grabatu zuen Kilometroak 2025eko abestia, apiril hasieran. Aitor Nova abestiaren sortzaileak parte hartu zuen grabazio horretan, baina Elgoibar Ikastolako komunitate kideek ere parte hartu zuten musika tresnak jotzen zein abesten.

Gitarra: Patxi Zabaleta Rojo. Baxua: Andoni Mujika Zubiaurre. Bateria: Ruben Irigoyen Iriondo. Teklatua: Ane Iñiguez Iruretagoyena. Tronpeta: Andoni Riaño Idiakez. Saxofoia: Aitor Nova Alvarez. Tronboia: Alaitz Almortza Arrillaga.

Ahotsak: Ainhitze Beristain Ariznabarreta, Olatz Macazaga Idarraga, Maddi Arrieta Arrizabalaga, Maialen Etxeberria Aranguena eta Noemi Araujo Gomez.

Bideoklipa

Jone Arriola gidoilari eta zuzendariari eskatu diote Kilometroak 2025eko antolatzaileek aurtengo ekitaldiko bideoklipa sortzeko eta zuzentzeko. Behin musika entzunda erabaki zuen nolakoa izango zen bideoklipa eta, aurtengo Kilometroen helburuak kontuan izanda, argi izan du hasierarik sokak eta helduak izan behar direla protagonistak. Euskarara salto egitea modu erakargarri batean islatu nahi izan da bideoklipean, jarrera positiboan, alaitasunetik, azken batean helduak direlako umeen eredu, eta hurrek gurasoak imitatzen dituztelako.

Euskarara salto egingo duen heldu bat da bideokliparen protagonista. Leku eta ardura handia hartzen du protagonistak bideoklipean, eta ardura hori hartzea eskatu diote Oihan Zubizarretari. "Guraso hau euskarara salto egin arteko puntura iritsi arteko ibildea kontatzen du bideoklipak", azaldu du Arriolak.



Abestiaren letra

Saltoooooooooo...
Saltoooooooooo...
Saltoooooooooo...
Saltoooooooooo...

Guri begira ari dira, begira-begira.
Mugitu gaitezen helduok behar den tokira.
Lehen saltoak gureak izango balira,
egon lasai, eurak ere etorriko dira.
Kilometroak... uuuuuuh...
Kilometroak...

Ama, aita, izeba, lagun, astindu nagiak!
Etorkizun usaina dauka zure izerdiak.
Lehenbiziko saltoetan ze kili-kiliak,
begira brilli-brilli dituzu begiak.
Uooooh...

Salto! Salto! Esatetik hitzetara!
Salto! Salto! Jaustean altxatuko gara!
Salto! Salto! Egiteko garaia da...
Saltoooooooooo... Elkarrekin euskarara!

Beldurra eta gogoia hegaldi berean,
aldaketa errazagoa ez al da taldean?
Albokoak ematen duen sokaren gainean,
egin dezagun salto, goazen airean!
Kilometroak... uuuuuuh...
Kilometroak...

Ikastolak bota du herriraino soka;
ohitura aldatzeko, badugu erronka!
Erosokeria jarritz gero koloka,
Kilometroen bueltan baietz herri bat saltoka!
Uooooh...

Salto! Salto! Esatetik hitzetara!
Salto! Salto! Jaustean altxako gara!
Salto! Salto! Egiteko garaia da...
Saltoooooooooo... Elkarrekin euskarara!

Salto! Salto! Esatetik hitzetara!
Salto! Salto! Jaustean altxako gara!
Salto! Salto! Egiteko garaia da...
Saltoooooooooo... Elkarrekin euskarara!

Elkarrekin euskarara!
Elkarrekin euskarara!
Elkarrekin euskarara!
Elkarrekin, salto euskarara!

Bideoklipa:



imh.eus



TALENTUAREN HEZITZAILEAK



B

atzordeak

1. ERRONKA

Zer da "ERRONKA" eta zein da bere helburua?

Lehenik adierazi, Ikastolen jai desberdinetan (Herri Urrats, Nafarroa Oinez...) Erronkak antolatzea ohikoa dela. Bestalde, Erronka, Ikastola desberdinetako 14-15 urteko nerabeen artean lehiatzeko proba multzo bat dela, hau da, euskara eta euskal kultura oinarritzat hartuz, proba fisikoak eta intelektualak konbinatuz burutzen diren jarduerak.

Azkenik azpimarratu, ondo pasatzeaz eta beste herrietako nerabeekin erlazionatzeaz gain, euren arteko lehiakortasun sanoa bultzatzea dela bere helburu nagusia.

Aurtengoan zenbat Ikastolek hartuko dute parte?

Edizio honetan Gipuzkoako 23 Ikastolek parte hartuko dute.

Urtean zehar zein egiteko izan dituzue? Nola antolatu zarete?

Erronka antolatzeko ardua Ikastolako irakasle eta familiako kide banak hartu zuten, ikasle ordezkariekin batera, hezkuntza komunitatea osatzen duten zutabe nagusiak baitira. Batzorde iraunkorra sortu ondoren, herri mailan ekintzaileak diren, euskal kulturarekin eta kirolarekin harremana duten herritarrak gureganatu ditugu (ikasle ohiak, familiak, irakasleak).

Hori horrela, Erronka proba bakoitza, zazpi izango dira guztira, pare bat pertsonen artean planifikatu, jarraian batzordea bildu eta denon artean proposamenak plazaratu eta rolak banatu genituen.

Gainera, Gipuzkoako Ikastola guztiekin harremanetan jarri eta parte hartu behar dutenen baieztapena jaso ondoren, Ikastola bakoitzak bere ordezkaria aukeratu du Erronka taldeko datuak (taldekideen izen-abizenak, argazkia, baimenak...) guri helaraziz.

Zer motatako probak egingo dituzue? Aurreratu daiteke zerbait?

Kirol proba fisikoak, euskal kulturaren inguruko probak, gastronomia proba... Elgoibarren tradizioa duten proba batzuk ere lekua izango dute aurtengo erronkan. Betiere, nerabeen artean euskaraz harremanak eraikitzea, erlazio sanoak sortzea, kirola eta kultura bultzatzea helburu izanik.



2. IKASLEEN PARTE-HARTZEA

Zein da batzorde honen egiteko nagusia?

Kilometroak 2025 jaia ikasleen ikuspegia eta parte hartzea kontuan izanda antolatzea da talde honen egiteko nagusia. Helburua, beraz, ikasleek euren interesak eta nahiak azaltzeko toki bat izatea, eta era berean, antolaketan parte hartzeko aukera eskaintzea izan da. Horrez gain, aurrera eramán diren eta eramango diren ekimenetan 0-5 urte bitarteko umeei ere beren tokia eskaintzea izan da gure taldearen ardura.

Nola dago osatua eta ze eratara antolatu zarete?

Lau helduz osatutako lantaldea da gurea, helduena. Eta ikasleen Batzorde Iraunkorra ere sortu genuen ikasleek beren hitza izan dezaten. Talde hori, LHko eta DBHko maila bakoitzeko 2 ordezkari osatzen dute. Haiek izan dira geletan, beren ikaskideekin, lanketa egin dutenak.

Urtean zehar zein ekintzetan hartu duzue parte?

0-5 urte bitarteko eskaintzari dagokionez, J. Gurrutxaga Krosean haienezako korrikaldia antolatu genuen estrainekoz. Baita bolatokian jolasgunea antolatu ere. Hori aurrera eramateko, LHko eta DBHko ikasleen kolaborazioa izan dugu: jolasgunea antolatzen, dominak egiten, korrikaldian laguntzen...

Orokorrean, gure taldearen egiteko nagusia antolatu diren ekintzetan haurren begirada txertatzea eta beren parte-hartzea bermatzeko proposamenak egitea izan da. Ikasleen bere intereseko ekintzetan parte hartzea ahalbideratzeko, LHko eta DBHko ikasleei galdetegi bat pasatu zitzaion Kilometroak jaiari eta urtean zeharreko ekiminei zegokienez, ia non parte hartzeko gogoaz zuten galdezka. Hala, ikasle bakoitzari bere intereseko eskaintza egin zaio: bideoklipen agertzea, abestea, eta egunera begira proposatuko zaizkien beste hainbat egiteko. Bestalde, Ikasleen Talde Iraunkorrean bi lan izan ditugu, bereziki: bata, ikaskideei Kilometroak jaia zer den, zein helburu jarri dizkiogun eta nola antolatuko garen azaltzea, eta besteaz, urtean zeharreko ekintzei eta egunari berari begira, ikaskideen proposamenak jasotzea.



Nolako izan da ikasleen ekarpena hilabete hauetan?

Ikasleak gogotsu daude parte hartzeko eta beren iritzia emateko. Zer esanik ez beren ikaskideekin ordezkari lanak egiteko. Lanak egitea gustuko dutela ikusi da eta, orokorrean, ikasleen jarrera eraikitzailea eta aktiboa izan dela esango genuke.

Inplikazioa altua izan dela uste dugu. Ez digu denborarik eman egiteko modua sistematizatzeko, baina ikasleen atxikimendua areagotzeko ezinbestekoa ikusten dugu haien parte hartzea sustatzea.

3. IKUSPEGI FEMINISTA

Zeintzuk dira batzorde honen helburu nagusiak?

Batzorde honek KM 2025 egunean ez ezik, antolaketa prozesuan izan diren eta izango diren ekintza guztietan emakumeen eskubideak bermatzea du helburu.

Horretarako funtsezkoa da gizarte osoaren kontzientziaioa eta bereziki festa honetan parte hartuko dugunona ikastolako irakasle, ikasle, guraso eta nola ez, herritarrarena.

KM 2025 egunari begira, eraso sexistarik eman ezkerro, erasotua behar bezala artatzea eta babestea izango da gure helburu nagusia. Eta horretarako, aurretizako kontzientziazio, formazio eta lanketa sakona dauka batzordean parte hartzen dugun guztion partetik.

Zer gai landu dituzue?

Batez ere KM 2025 egunari begira martxan jarriko dugun Protokoloa lantzen aritu gara. Eta horrekin batera, prebentzioa (ikastetxeetan) eta kontzientziazioa (gizartean) izan dira ardatz nagusiak. Horretarako, formakutza saioak antolatu ditugu. Bai ikasleei begira, baina lanean jardungo dugun pertsona guztiei begira ere.

Formakuntzarik jaso al duzue?

Bai, eta hau oso garrantzitsua izan da. Egunean bertan Protokoloa behar bezala betetzeko eta eraso baten aurrean nola erantzun behar dugun jakiteko, ezinbestekoa iruditu zaigu taldekide guztiak formatuta egotea. Eta horrekin batera, formakuntza saio irekiak ere antolatu ditugu. Gaiak gizartean duen oihartzunaz jabetuta, ezinbestekoa dela ulertzen baitugu.

Zuen lana nola gorpuztuko da KM Egunean?

Herrian guztira 3 Gune More egongo dira. Koordinazio gune nagusia Ikastolan kokatuko da. Egunean zehar txanda desberdinak antolatuko dira. Edozein eraso matxista/sexista gertatu ezkerro, protokoloaren baitan lan egingo dugu. Eta kasua Koordinazio Gunera (Ikastolara) bideratuko da. Bertatik koordinatuko baita harremanetan jarri dagokigun profesional desberdinekin. Behin jaia amaitutakoan, balorazio bilera bat egingo da. Gertakariak eta jokaerak aztertzeke, eta hobetu beharrekoak mahai gainean jartzeko ere.





4. EUSKARA

Euskara Kilometroen jaien ardatz nagusienetako bat izanik, zeintzuk dira zuen batzordearen helburu nagusiak?

Kilometroetako helburu nagusietako bat gure komunitatea euskalduntzea da: Ikastola euskaldun bat nahi dugu, baina baita herri euskaldun bat ere. Elgoibarren erdara nagusi den arren, euskararen ezagutza oso zabalduta dago. Horrek aukera paregabea eskaintzen digu, bai Ikastola barruan, bai kalean, euskararen erabilera handitzeko. Helburu horrekin bat eginez, erronka zehatza jarri dugu: **gutxienez 100 helduk euskarara salto egitea.**

Zer jarduera eraman dituzue aurrera helburu horiek lortzeko?

Helburu horiek lortzeko, gure batzordearen lana hiru ardatz nagusitan laburbil daiteke:

Diagnostikoa: Urte hasieran, Ikastolako helduen hizkuntza-ohituren inguruko galdetegi bat zabaltu genuen. Emaitzek argi utzi zuten euskararen erabilera sustatzeko urratsak behar zirela, eta hortik abiatuta, EUSLE rola beteko zuten boluntarioak bilatzen hasi ginen, ohiturak aldatzeko eta erabilera areagotzeko helburuarekin.

Motibazioa eta dinamizazioa: Kilometroak giroan, ekintza dibertigarriak antolatu ditugu

euskara ardatz hartuta: bingo musikatuak, hitz-jolasak eta beste hainbat dinamika, euskaraz aritzeko aukerak sortuz eta parte-hartzea bultzatuz.

Errealitatearen neurraketa: Aldi berean, Ikastolako sartu-irtenetan isileko neurraketa egin ditugu, egunerokoan euskararen erabilera benetan zein den neurtzeko, eta hortik abiatuta hobetzeko bideak identifikatzeko.

Zein da zuen iritziz euskararen egoera gure komunitatean? Eta zeintzuk dira erronka nagusiak?

Azken urteetan euskararen ezagutza handitu da, batez ere gazteen artean, baina erabilera ez da maila berean igo, eta testuinguru askotan erdara nagusitzen da.

Erronka nagusiak dira erabilera sustatzea, familia bidezko transmisioa indartzea, euskararen presentzia digitala eta lan munduan handitzea, eta jarrera positiboak bultzatzea.

Kilometroen egunari begira, zeintzuk izango dira zuen eginbeharrak?

Uztailan batzorde ezberdinak eratzen hasi ginen, urriaren 5ean behar ditugun beharretara egokitzeko, gure batzordetik lan talde hauetan euskaraz jarduteko gida bat lantzen ari gara, baina eguna bera, beste batzordeei laguntzeko baliatuko dugu.



Urtean zehar egindakoak

Pilota eguna

Urteurren berezia egin du aurten Elgoibar Ikastolaren Pilota Egunak, 25. ekitaldia egin baitzen joan den martxoaren 8an. Gainera, Elgoibarren Kilometroak antolatzen diren urtean egin ditu 25 urte ekimen honek. Data esanguratsu horiek baldintzatuta, Pilota Egun berezia eta osatuagoa egin zen, herriko pilotalekuetan.

Aurtengo Pilota Eguna herriko pilotaleku ezberdinetan egin bada ere, finalak Kalegoen plazan jokatu ziren, jai-giro paregabea. Pilotan jokatzear gainera, pilota bera nola egiten den ikasteko tailerrean parte-hartzeko aukera izan zuten neska-mutikoei. Otero pilota-egileak irakatsi zien haurrei nola egiten diren pilotak.

Helduek ere izan zuten Pilota Egunean parte-hartzeko aukera. Behin finalak amaituta, pilota jolasean aritzeko modua izan zuten.

Xabi Erostarbe, Eneritz Arrieta eta Naroa Agirre pilotari profesionalen laguntzarekin egin zen sari-banaketa eta gero, pilota produktuen zozketarekin amaitu zen XXV. Pilota Egun berezia.



Krosa

Kilometroak jaiarekin lotura berezia izan zuen joan den apirilaren 6an Elgoibarko kaleetan egin zen Jose Gurrutxaga krosak. Aurten Kilometroak Elgoibarren egiten dela eta, jaiarekin lotutako hainbat ekimen izan ziren. Hala, soka saltoan amaitu zuten eguna, aurtengo Kilometroen leloarekin bat eginez.

700 parte-hartzaile izan zituen Jose Gurrutxaga krosak. 30. ekitaldia izan zen igandekoa, baina inoizko bereziena ere izan zen, Kilometroak Elgoibarren egingo denaren aitzakiarekin. Modu horretara, haur hezkuntzako ikasleek korrika egiteko aukera izan zuten, eta 0-5 urte arteko haurrentzat jolas-gunea antolatu zuten.

Behin lasterketa guztiak amaituta, bazkari herrikoa egin zuten elizpean, eta 250 lagunek parte hartu zuten. Bingo musikatua izan zuten bazkalostean. Eguna amaitzeko, esan bezala, soka saltoan amaitu zuten helduek, euskarara salto egiteko prest daudela irudikatzeko.



Diseinua, ingeniaritza eta fabrikazio aurreratua askotariko sektoreetarako.

Soluzio aurreratuak sektore hauetarako, besteak beste, automobilgintza, osasuna, sarbideen kudeaketa, mugikortasuna, energia berriztagarriak, azpiegitura kritikoak, meatzaritza eta aeronautikarako.

Non eta mugan

Ikasleek beraien esperientziak trukatzeko eta ikastolek antolatzen dituzten jaiek herriari egiten dioten ekarpena bistarazteko sortu zuten 'Non eta mugan' ekimena. Iaz jarri zuten martxan ekimena, eta aurten izan da bigarren ekitaldia. Bastidan elkartu ziren DBH4ko ikasleak, joan den apirilaren 4ean.



Bastidan elkartu ziren periferian dauden ikastoletako eta aurtengo jaien antolatzaile diren ikastoletako 14-16 urte bitarteko ikasleak. Hau da, Arabako San Bizente eta

Assa Ikastoletako ikasleak, Bizkaiko Zubi Zahar Ikastolakoak, Nafarroako Argia Ikastolakoak eta Iparraldeko Etxepare Lizeokoak. Haiekin batera izan dira 2025eko ikastolen jaien antolatzaile diren ikastoletako ikasleak: Bastida (Assa), Elgoibar, Atarrabia (Paz de Ziganda) eta Galdakao (Eguzkibegi).

"Ikastolek herriari egiten dion ekarpenaren ardatzean egiten dugu Non eta Mugan ekimena", azaldu du Mikel Egibar ekimenaren koordinatzaileak. Aisialdian ikastolek egindako ekarpena azpimarratu nahi dute Bastidan egindako ekitaldian. "Euskal kultura da egiten diogun ekarpen handiena", esan du Egibarrek. Nazioa "modu erreal eta presente" batean lantzea ere izan da helburua, eta horretarako, Euskal Herri osoko ikastoletako ikasleak elkartu zituzten Bastidan, esperientziak elkartrukatu eta elkar ezagutzeko.

Periferiako ikastoletan lan nola egiten duten ikusi ahal izan zuten, horrenbestez, ikasleek, eta beraien begiekin ikusi ahal izan zuten erdigunean zein periferian berdinak direla eta antzeko lana egiten dutela.

Ikastola eguna

Jai giroan eta komunitatea sendotuz egin dute, aurten ere, Ikastola Eguna Elgoibarren. Baina aurtengoak berezitasun handia izan du, Kilometroak 2025 Elgoibarren egiten delako. Haur, gazte zein helduei zuzendutako egitarau zabalarekin egin zuten Ikastola Eguna, maiatzaren 31n: jolasak, eskulanak, aurpegia marraztea, familia erronka, dantzaldia... Eta nola ez, komunitate osoa batu zuen bazkaria.



Baina, esan bezala, Kilometroak 2025 Elgoibarren egiteak hartu zuen lekua aurtengo Ikastola Egunean. Bertan ikusi ahal izan zuten bideoklipa. Abestia ere lehen aldiz jo zuten jendez lepo zegoen Maalako parkean.



salto-saltoka

GEMINIS



MAHER HOLDING



BERRITZAILEA

KALITATEZKOA

PRAKTIKOA

GIZARTEAREKIN KONPROMETITUA

GRADU BAT IKASTEKO PREST?



mondragon.edu/prest